

Deustuko Ikastetxe Nagusiaren jarrera eta Jarduteko protokoloa hasiberrien kontrako isekak direla eta

A. Harrera Ikastetxe Nagusian eta errespetuan eta askatasunean oinarritutako elkarte sortzea

Ikastetxe nagusien misioak ikasleen goitik beherako prestakuntza du ardatz. Alde horretatik, funtsezkoa da ikasle berrien harrera eta integrazioa egokiak izatea.

Gure Ikastetxe Nagusira datozenek, heltzen diren momentutik, onartu egiten ditugula sentitu behar dute, ikasketak lasaitasunez eta ilusioz hasi eta haien gaitasunak eta balioak garatu ahal izan ditzaten, inguru bero eta familia-girokoan, eta askatasunez eta erantzukizunez aukera egin ahal izan dezaten, pertsonaren duintasuna eta osotasuna babesten zaizkielarik. “Beldurra, mendekotasuna edo onarpen pasiboa” eragiten duenik ez da onargarria gure elkarbizitzarako. Ez da onargarria ikastetxean ikasleen arteko nagusitasun, inposizio edo bazterketa jarrerarik.

Ikastea da Ikastetxe Nagusiko egonaldiaren helburu nagusietariko bat. Unibertsitateek ikasturtearen hasieratik markatzen dute egin beharreko lana. Hortaz, ikasteko giroa hasieratik bertatik zaindu behar da, gehiegizko irteerek edo bestelako gertaerek oztoporik jarri ez diezaieten ikasleei klaseetan kontzentratzeko.

B. Ikastetxe Nagusiaren jarrera hasiberrien kontrako isekak direla eta.

- Batzuetan, hasiberrien kontrako isekak unibertsitateko bizitzaren hasierako erritutzat hartzen dira, kohesioa, taldeko sentimendua eta halakoetan parte hartzen dutenen unibertsitateko espiritua sustatzen duten gertakari “barregarri eta dibertigarri” gisa. Horrek erakusten du gaia azaletik eta okerretara ulertzen dela. Sarritan eragiten duten sufrimenduari, larritasunari, askatasun eta errespetu faltari, bizikidetza narrastea eta sekretismoa eta isiltasunaren legea gehitzen badizkiegu, giza eskubideen eta pertsonen segurtasunaren kontrako jokabidetzat jo ditzakegu. Are gehiago, epaitegietan salatzeke moduko kasuak dira. Gainera, Ikastetxe Nagusi honetako bizikidetza eredugarriaren erabat kontrakoak dira.

Hasiberrien kontrako isekak boterean eta menpekotasunean oinarritutako egoera asimetrikoan gertatzen dira, maila bateko hertsaduran eta sufritzen duenarentzat arrisku fisiko eta/edo psikologikoko egoera batean gertatzen dira beti, eta hala jokatzeko dutenen aldetik gabezia eta sentiberatasun falta erakusten dute. Taldeko fenomeno bat da, botere-menpekotasun dinamika da ezaugarri nagusia eta biktimen adostasuna, garrantzirik gabea.

- Honelako jokabideez ari gara: lo egiten ez uztea edo loa etetea; toki jakin batzuetara irtenaraztea edo joatera behartzea; alkohola edatera edo bestelako janaria jatera behartzea; mehatxuak; ez-izenak jartzea; ikasleak degradatzea edo beren nortasunaz gabetzea; gauza pertsonalak edo geletako gauzak lapurtzea; hirira lotsarazteko moduan

jantzita irtetera behartzea; elikagaiak erabiltzea ikasleei jaurtikitzeko; zenbait zeregin egitera behartzea. Oro har, denak dira pertsonaren kontrako indarkeria edo menpekotasuna edo mespretxua eragiten duten jokabideak, pertsonari zor zaion askatasuna eta errespetua kentzen diotenak.

- Gauzak horrela, argi baino argiago dago jokabide horiek edozein Ikastetxe Nagusiren balioen erabat kontrakoak direla.
- Askoz positiboagoak dira bestelako jarduera eta bizikidetzako jarrerak, askatasuna, errespetua eta ongizatea oinarri harturik integratzen laguntzen dutenak. Ikastetxe Nagusia hasiberrien kontrako iseken aurka dago, ikasleen artean beldurra, menpekotasuna edo onarpen pasiboa eragin eta pertsona horien eskubideen kontrako jokabideen aurka. Alderantziz, etxe-giroko bizikidetzak, errespetua, elkarri laguntzea, tratu ona eta harrera beroa sustatu nahi ditu ikasle guztien artean.

C. Ikasle hasiberrien kontrako jarrerei eta ekintzei aurrea hartzeko, honela dihardu Ikastetxe Nagusiak:

1. Une oro azpimarratzen da etxe-giroko bizikidetzak espiritua eta elkarri laguntzea izan behar direla Ikastetxe Nagusiko bizimoduaren goiburua.
2. Zuzendaritzako kide batek hitz egiten du plaza berri izan nahi duen ikasle bakoitzarekin eta azaltzen dio zein den Ikastetxe Nagusiaren jarrera gai horrekiko.
3. Ikasle berriei gutuna bidaltzen zaie bizikidetzarako arauekin. Ikasleak arau horiek onartzen dituela sinatu behar du.
4. Ikasle berriekin bilera bat antolatzen da. Ikasle berriak gainerakoak baino arinago hasten dira Ikastetxean, elkar hobeto ezagutzeko eta ikasleen bizimoduaren eta arauen berri izan dezaten.
5. Ikasle berriei eta familiei egiten zaien harreraren azpimarratu egiten da Ikastetxearen konpromisoa hasiberrien kontrako iseken, eta laguntza eskatzen zaie familiei.
6. Goragoko mailetakoa ikasleak hasten direnean, ongiatorria eman eta Ikastetxe Nagusiaren helburuak eta arauak azaltzen zaizkie berriro, eta aparteko aipamena egiten zaie ikasle berriei eman behar zaien harrera onaren inguruan.
7. Ikasturtearen hasieran handiagoa da zuzendaritza taldekoen eta zerbitzuko langileen presentzia.
8. Elkarriketak egiten zaizkie ikasle berriei egoera berrira, Unibertsitateko eta Ikastetxe Nagusiko bizitzara zelan ari diren moldatzen ebaluatzeko.
9. Ikasturteko lehenengo hilean ez zaie ikasle ohiei Ikastetxean sartzeko baimenik ematen.
10. Ikastetxeak **“inguru segurua”** sustatzen du eta Jesusen Lagundiaren obretako **Jokabide Kodea** jarraitzen du.

D. Jarraibide protokoloak hasiberrien kontrako isekak direla eta:

- Gertatu litezkeen kasuetan lehenbailehen eta era ordenatuan esku hartzeko, protokolo bat diseinatu da, ikastetxeko ikasleren bat ikastetxeko espirituaren kontrako egoeraren biktima den argitzeko eta horren arabera jarduteko. Protokolo hori halako kasuetan jarriko da martxan: salaketa anonimo edo sinatu bat jasotzen bada, zuzendaritza taldeko

kide bati horren berri ematen bazaio, zuzendaritza taldeko edo Ikastetxeko langileren batek zuzenean ikusi badu; halakorik gertatu izan dela Ikastetxe Nagusian edo handik kanpo frogatzen duen argazki edo probarik badago.

- Prozesuan zehar, elkarrizketak egingo zaizkie inplikatuak eta kontuan hartuko dira eskura dauden frogak. Zuzendariak zuzendariordeetako bat izendatuko du instruktore, inplikaturak dauden ikasleei ez dagokienez bat. Beharrezko informazioa jasotakoan, instruktoreak Zuzendaritza Kontseilura bidaliko du kasua. Organo horrek erabakiko du araudia urratu den ala ez eta egoki diren neurriak hartuko ditu. Faltak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke. Oso larriek Ikastetxe Nagusitik kanporatzea ekar dezakete eta Unibertsitateko Errektoretzari jakinaraziko diote horren berri, espediente akademiko bat irekitzeko, hori egitea egoki ikusiz gero.
- Entzuna izateko eta Ikastetxeko Zuzendaritzari erreklamazioa aurkezteko eskubidea errespetatuko da. Adinez nagusi ez diren ikasleen kasuan, gurasoek edo tutoreek entzunak izateko eskubidea izango dute eta behar bezala informatuak izango dira.
- Indarkeria egoera jasan dutenei dagokienez, aparteko eran zainduko da antzeko besterik errepikatu ez dadin eta dagokienez erreparazioa jaso dezaten. Pertsonen babesak hala eskatzen badu, larrialdiko neurriak hartu ahal izango dira, kautelaz.
- Instrukzioa egiten den bitartean, konfidentzialtasunez gordeko dira ekintzekin kaltea jaso duten pertsonen izenak.
- Ikerketa protokoloa amaitutakoan, egoki ikusiz gero, dagozkion diziplina eta hezkuntza neurriak hartuko dira. Neurri horiek kasuko kaltetuei jakinaraziko zaizkie eta, adingabeen kasuan, gurasoei edo legezko tutoreei.
- Azkenik, prozesua amaituta, kasuan nahasita daudenei lagun egiteko eta Ikastetxe Nagusiko ongizatea eta bizikidetzaren bermatzeko, bi edo hiru pertsona izendatuko dira eta haiek arduratuko dira etengabe laguntza emateaz.

Hasiberrien kontrako iskei lotutako edozein jokabide falta larritzat joko da, eragindako mina, asmoa, errepikatu izana, taldean egin izana eta alde zuzenetik pentsatuta egin izana kontuan hartuta.

Ekintzan lankidetzat hartuko dira eta zehapena jasoko dute halako ekitaldietara doazenek, hori egitea onartzen dutenak, horren berri izan eta salatzen ez dutenek.

OHARRA:

2012an Deustuko Ikastetxe Nagusiak, Elkarteko gainerako Ikastetxe Nagusiekin batera, "Hasiberrien kontrako iseken aurkako manifestua" sinatu zuen. Jarduera horiek gaitzetsi egin zituen eta, erabat erautsi arte, lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu zuen.